

BABES LERROAK

0. lerroa: Egoitza-eraikinak birgaitzeko laguntzak.

Euren eraikinean lanak egin behar dituzten jabekideen erkidegoek zuzeneko laguntza bat jasoko dute obra orok sortzen dituen gastuak ordaintzeko (EITa idaztea, teknikarien ordainsariak, lizentzien kostuak eta abar) eta birgaitze-lanak sustatzen dituzten familiak babesteko.

1. lerroa: Zaurgarritasuna.

Zaurgarritasun-egoeran dauden familiak babestuta egongo dira, euren eraikinean birgaitze-lana garrantzitsuak egin behar badituzte edo euren etxebizitzak bizigarritasun-baldintzak betetzeko oinarritzko eta beharrezko lanak egin behar badituzte.

2. lerroa: Segurtasuna.

Eraikinen segurtasuna berreskuratzen eta hobetzen dituzten obrak lagunduko dira diruz, hala nola honako hauek:

Fatxadetan eta teilatu-hegaletan egin beharrekoak, espazio publikoko segurtasunari lotuta badaude, besteak beste fatxadatik zerbait askatzeko eta txintxorrek edo erlaitz-zatiak erortzeko arriskua ekiditeko.

Sostenguko egituran dauden kalte orokorren, zimentazioko edo ondoko lursailletako euste-hormetako patologien edo antzekoen ondorio direnak.

Instalazio elektrikoak, ur beltzen zorrotan eta abar. Dagokion legezko aginduari jarraituz eta Surbisako teknikarien iritziz agindu daitezkeenak.

3. lerroa: Irisgarritasuna.

Eraikinetan eta etxebizitzetan igogailua jartzeko eta arkitektura-oztopoak kentzeko lanak..

4. lerroa: Proiektu estrategikoak eta energia-efizientzia

Energia-efizientziako neurriak ezartzeko jarduketak, ondare-balioa berreskuratzekeo neurriak, eta eraikin-multzoetako, ingurune berezietako edo ikus-inpaktua dela eta interes berezia duten eremuetako esku-hartzeak.

5. lerroa: Merkataritza-establezimenduak hobetzea.

Beheko solairuan dauden merkataritza-lokaletako instalazioak edo elementuak hobetzeko, egokitzeko eta/edo modernizatzeko obrak, lokaletan jarduera bat egiten bada zein erabili gabe badaude, betiere eraikinaren kanpoaldeko itxura hobetzen badute (erakusleihoak; errotuluak eta kanpoko beste elementu batzuk; kanpoko eta/edo erakusleihoetako argiztapena; pertsianak —sartuak— aldatzea; kanpoko igeltserotza-, arotzeria- eta pintura-lan txikiak eta berritzeak; fatxada-birmoldaketak eta -berritzeak eta abar).

6. lerroa Belaunaldi arteko Programa Bilbo Zaharrea

Etxebizitzak birgaitzeko diru-laguntzak aitortuko zaizkie bakarrik dauden eta etxebizitza jabeak diren adinekoei baldin-eta emantzipatzeko eta aldi baterako ostatua lortzeko zailtasuna duen pertsona gazte batekin etxebizitza partekatzeko belaunaldi arteko programan parte hartzen badute; eta oinarri hauek aplikatuko zaizkie berezitasun honekin: etxebizitzari emandako laguntza gutxienez % 35ekoa izango da, Eusko Jaurlaritzakoak gehituta, eta ez zaio eskatuko araudian 2 eta 3 Lerroetara iristeko ezarritako gutxieneko aurrekontu babesgarria.

Era berean, beste laguntza berezi batzuk daude; esaterako:

Trenbidearen trazadurak atxikitako aldamiok jartzeko laguntzak.

Finka administrariak kontratatuzko laguntzak.

Termiten aurkako tratamendu bateraturako laguntzak.

Kohesio sozialerako laguntzak.

Laguntzen irismena Bilboko 2. Barrutian.

Oinarrien Eranskinean jasotako Arabella Zurbaran auzoko eraikuntza multzoek osoki izan daitezke Oinarri Arautzaileen laguntzen onuradun.

Uribarri Matiko auzoan Eremu Degradatu izendatutakoaren mugarte barruan dauden eraikinak, baldin-eta izendapen horretarako prozedura hasita badago, osoki izan daitezke Oinarri Arautzaileen laguntzen onuradun.

Uribarri Matiko auzoko gainerako eraikinak, baldin-eta euren kokapena bat badator errolda atal zaurgarritzat hartutakoren batekin, eta Eranskinean jasota badaude, 0 lerroko laguntza eskatu eta lortu dezakete soilik; ezingo zaie beste laguntza lerrorik aplikatu ez eta Xedapen Gehigarrietan jasotako laguntza berezirik ere.

Bilboko 2. Barrutiko gainerako eraikuntzak ez dira Surbisak eraikin eta etxebizitzak birgaitzeko ematen dituen laguntzen Oinarri Arautzaileetan jasotako laguntzen xede izango.

Olabeagako Degradatutako Eremua.

Olabeagako Degradatutako Eremuko eraikin, etxebizitza eta lokalek Oinarri hauetan jasotako laguntzen onuradun izan ahalko dira Surbisaren gainerako eremuetako baldintza eta betekizun berberekin, baldin-eta babestekoa den jarduketaren Obra lizentzia 2024.12.31 baino lehenagokoa bada eta egikaritzea 2025.12.31 baino lehen amaitzen bada.